



ESNEAK ERAGINDAKO ALERGIA

Zer da esneak eragindako alergia?

Esneak eragindako alergia da **organismoak esneak dituen proteinei emandako aurkako erantzuna**, esnekiak hartu ondoren gertatzen dena. **Mekanismo immunologiko egiaztatua dago**; izan ere, aurkako erantzun guztiak ez dira erantzun alergikoak.



Sistema immunitarioak emandako neurririk gabeko erantzuna da, gehienetan kaltegabea den elikagai bat hartu ondoren agertzen dena.

Alergia izateko aukerak dituzten norbanakoek, elikagaiarekin lehenengo kontaktua izan ondoren, giza esnearenak ez diren proteinak atzematen dituzte eta erantzun immunologikoa gertatzen da.

Esnearen alergenok

Esnearen proteinek eragiten dute esnearen alergenotasuna:

KASEINAK: esne osoaren proteinen % 80 dira:

- Alfa kaseina
- Betakaseina
- Kappakaseina

SEROPROTEINAK: gazuraren proteinak dira, esne osoaren % 2.

- Betalaktoglobulina
- Alfalaktoalbumina
- Behien seroalbumina
- Behien immunoglobulinak

Beste proteina batzuk, proportzio txikiagoan: laktoferrina, transferrina, lipasa





Esnearen aurreko alergiaren sintomak

Sintomak esnea hartu eta 60 minutu baino lehen agertzen dira, eta alergiaren koadroen larritasuna oso aldakorra da, sentsibilizazio-mailaren eta hartutako kopuruaren arabera.

Jakin egin behar da elikadura-alergeno berak beti ez duela sintomatologia bera eragiten, eta hartutako kopuruek ere zerikusia dutela ondorengo erantzunarekin.

Agerraldi klinikoak (maiztasun handiena dutenetatik txikiena dutenetara):

1) Azaleko sintomak:

- a) Lesio eritematosoak, urtikaria eta babatzarrak elikagaia kontsumitu dutenen ukipen-zonaldean (elikagaia zuzenean ukitzean, musuak ematean, etab.). Eragina betazeletan, eskuetan edo modu orokortuan ager daiteke.
- b) Dermatitis atopikoa (DA) PLVek eragin edo handitu ahal dute. Zaila da sintoma ebaluatzea, ez baita berehalakoa; baina, alergia eragiten duen alergenoa baztertzean, hobekuntza ikusten da.

2) Urdail-hesteetako sintomak

- a) Ahoko alergiaren sindromea: Ukipen bidezko urtikaria da, orofaringekoa: azkura eta angiódema ezpain, mihi, ahozeru eta eztarrian. Erlatiboki azkar konpontzen da.
- b) Digestio-agerpenak: goragalea, sabelaldeko mina, gorakoa eta/edo beherakoa.

3) Arnasa-sintomak:

- a) Bronkioen hiperaktibitatea, erantzun asmatikoak, errinokonjuntibalak (doministikuak, sudur eta begietako azkura, malkoak eta sudurraren kongestioa).

4) Anafilaxia:

a) Aurretik deskribatutako sintoma batzuek edo guztiek gain, sintoma kardiobaskularrak ere badaude: hipotentsioa, arritmiak eta kolapso baskularra. BIZI LARRIALDIKO egoera da. Anafilaxia bereziki larria da gaixo asmatikoengan gertatzen bada.

Esnea alergenoz ezutu gisa

Hala gastronomian nola elikagaien industria-ekoizpenean, esnea oso zabaldua dagoen osagaia da; beraz, esnearen proteinak hainbat elikagaitan egon daitezke. Esnekietan ez ezik, esnea osagai gisa erabiltzen da opilgintzako eta gozogintzako produktu gehienetan, baita bestelako produktuak egiteko ere: hestebeteak, saltsak, salda kontzentratuko pilulak, laboreen kontserbak eta prestatutako zopak.

Esnearen proteinak kontserbatzaile gisa ere erabil daitezke prozesatutako hainbat elikagaitan. Esate baterako, lakt-erroa duten gehigarriak daude: laktiko, laktato, laktilato, laktona edo laktitola.

